**BAZTANGO TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO BILKURA AKTA: 2013/12/27**

2013ko abenduaren 27an goizeko 11:30ean Baztango Udalak Tokiko Gobernu Batzordea ohiko eta lehenengo deian osatu zuen arauzko moduan deitu ondotik. **GARBIÑE ELIZEGI** alkatea mahaiburu izanik eta ondoko zinegotziak bertaratu ziren:

***ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN EL DÍA 27/12/2013***

*En Elizondo y casa consistorial, siendo las 11:30 horas del día 27 de diciembre de 2013, se reúne el Ayuntamiento de Baztan constituido en Junta de Gobierno Local, en sesión ordinaria y primera convocatoria, tras haber sido convocada la misma en forma legal. Presidida por la alcaldesa* ***GARBIÑE ELIZEGI*** *y con la asistencia de los siguientes Concejales:*

**.- MIKEL ORTEGA**
**.- FLORENTINO GOÑI**
**.- IÑIGO ITURRALDE**
**.- MAITE J. ITURRE**

Eta artatuz, udal-idazkaria Iulen Urbiola Loiarte Jauna.

*Asistiendo como secretario, el titular de la corporación, D. Iulen Urbiola Loiarte*

**1.- AURREKO AKTA**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondotik Tokiko Gobernu Batzordeak 2013ko abenduaren 20ko akta berresten du.

*Tras dar inicio la Alcaldesa a la reunión la Junta de Gobierno Local ratifica el acta del 20 de diciembre de 2013.*

**2. HIRIGINTZA**

**3.- ESKAERAK**

**3.1 TOMAS SARRATEA ELIZAINCIN**ek 2013/12/2an Bagordi eremuan dagoen zuhaitza berari ematea eskatu zuen. Udal mendizainaren txostena ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du zuhaitza hartzeko baimena ematea. Ordaindu behar den kopurua 40 €.

***3.1.*** *Con fecha 2/12/2013* ***TOMAS SARRATEA ELIZAINCIN*** *solicitó un árbol en la zona de Zazpiturri. Visto el informe del guarda forestal municipal la Junta de Gobierno Local da permiso a la solicitud. El total a pagar es de 40 euros.*

**3.2 MANUEL LOYARTE SANTESTEBAN**ek 2013/12/20an Iruritako errekan dauden 3 zuhaitz berari ematea eskatu zuen. Udal mendizainaren txostena ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du zuhaitza hartzeko baimena ematea. Ordaindu behar den kopurua 58 €.

***3.2*** *Con fecha 20/12/2013* ***MANUEL LOYARTE SANTESTEBAN*** *solicitó 3 árboles en la zona de la regata de Irurita. Visto el informe del guarda forestal municipal la Junta de Gobierno Local da permiso a la solicitud. El total a pagar es de 58 euros.*

**3.3 LEGATE ELKARTEA**ren izenean 2013/08/27an, Elizondoko Jaime Urrutia 19.ean dagoen Marijuanenea etxeko lehenengo solairuko eskuineko etxebizitzan erreformak egiteko obra baimena eskatu zen. 2013/09/20an eta 2013/12/13an aipatutako lanak baimendu ziren, nahiz eta lan berdinak izan, EIOZa bi aldiz kobratuz. Kontuan harturik lan berdina egiteko bi baimen daudela eta ikusita eskatzaileak sartutako idazkia, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

1.- 2013/12/13ko obra baimena bertan behera uztea eta EIOZa baliorik gabe uztea, errepikatua egoteagatik.

2.- Akordio hau interesatuei eta udal gordailuzainari helaraztea, jakinaren gainean egoteko eta ondorioetarako.

***3.3*** *Con fecha 27/08/2013 en nombre de la* ***SOCIEDAD LEGATE*** *se solicitó licencia de obra para reformar el piso primero derecha de la casa Marijuanenea en el número 19 de la calle Jaime Urrutia de Elizondo. Con fecha de 20/09/2013 y 13/12/2013 se autorizó, respectivamente, la realización de la misma obra, cobrándole dos veces el ICIO. Teniendo en cuenta la existencia de dos licencias sobre una misma obra y vista la solicitud cursada en nombre de la Sociedad Legate, la Junta de Gobierno Local ha resuelto:*

*1.- Anular la licencia de obra otorgada con fecha de 13/12/2013, al ser redundante, así como el recibo de ICIO correspondiente.*

*2.- Notificar el presente acuerdo a los interesados y a la depositaria municipal, para su conocimiento y efectos oportunos*

**3.4 RODOLFO TUBON ERAZO**k 2013/12/23an gabon zaharra dela eta, merkatuko plazan, abenduaren 31ko 21:00etik urtarrilaren 1eko 6:00ak arte dantza ekitaldi bat egiteko baimena eskatu zuen. Eskaera ikusirik Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

1.- Baimena ematea udal honi dagokionez.

2.- Tokia garbi eta txukun utzi beharko da.

3.- Antolatzaileak sortutako kalteen erantzuleak izango dira.

***3.4*** *Con fecha de 23/12/2013* ***RODOLFO TUBON ERAZO*** *solicitó permiso para celebrar con motivo de la noche-vieja un baile en la plaza del mercado desde las 21:00 del día 31 de diciembre a las 6:00 del 1 de nero del 2014. Vista la solicitud, la Junta de Gobierno Local resuelve:*

*1.- Conceder la autorización solicitada en lo que a este Ayuntamiento compete.*

*2.- El lugar habrá que dejarlo en perfectas condiciones.*

*3.- Los organizadores responderán de los daños que se originen.*

4.- Akordio hau interesatuei, Elizondoko alkateari, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari eta udaltzaingoari helaraztea, jakinaren gainean egoteko eta ondorioetarako.

*4.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, al alcalde de Elizondo, al Departamento de Presidencia, Justicia e Interior y a la autoridad policial local, para conocimiento y efectos oportunos.*

**3.5 MARIA ASUNCION MARITORENA OTEIZA**ri 2010/08/23an Arizkungo Antxonea etxearen beheko solairuan obra eta jatetxerako jarduera baimenak eman zitzaizkion. 2013/12/12ko datarekin aipatutako obra ata jarduera baimenei uko egiten diela jakinarazten du. Eskaera ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:
1.- Maria Asuncion Maritorena Oteizari 2010/08/23an Tokiko Gobernu Batzordeak baimendutako obra eta jarduera baimenei uko egitea baimentzea. Ordaindutako EIOZa itzuliko da.
2.- Akordio hau interesatuei eta udal kontu-hartzaileari helaraztea, jakinaren gainean egoteko eta ondorioetarako.

*3.5 Con fecha de 23/08/2010 a* ***MARIA ASUNCION MARITORENA OTEIZA*** *se le concedió licencia de obra y licencia de actividad para restaurante en la planta baja de la casa Antxonea de Arizkun. Con fecha de 12/12/2013 ha presentado renuncia a la citada licencia de obras y actividad. Vista la solicitud la Junta de Gobierno Local ha resuelto:*
*1.- Autorizar la renuncia de María Asunción Maritorena Oteiza a la licencia de obras y licencia de actividad concedida por la Junta de Gobierno Local con fecha 23/08/2010. Se devolverá el ICIO cobrado.*
*2..- Notificar el presente acuerdo a los interesados y a la interventora municipal, para su conocimiento y efectos oportunos.*

**3.6 MARTIN ARRAZTOA MENDICOA**k 2013/12/23an Iruritako Tipular eremuan dagoen akazia berari ematea eskatu zuen. Udal mendizainaren txostena ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du zuhaitza hartzeko baimena ematea. Ordaindu behar den kopurua 50 €.

*3.6 Con fecha 23/12/2013* ***MARTIN ARRAZTOA MENDICOA*** *solicitó una acacia en la zona de Tipular de Irurita. Visto el informe del guarda forestal municipal la Junta de Gobierno Local da permiso a la solicitud. El total a pagar es de 50euros.*

**4-. BESTEAK**

**4.1 ALKATETZAK** Tokiko Gobernu Batzorderi jakinarazi dio auto-karabanen parkinaren egokitze lanak kontratatu behar direla. Honako enpresek proposamen ekonomikoak aurkeztu dituzte: Lindutx Baztan SLk, Oskariz Anaiak SLk eta Miguelene SLk. Ikusirik Oskariz Anaiak SLk proposamen merkeena aurkeztu duela, 2.638,20 € BEZa kanpo. Jakinda Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeak diola halako kontratuetan balio zenbatetsia, BEZa kontuan hartu gabe 3.000 eurotik beherako balioa duten laguntza kontratuetan nahikoa izanen dela faktura aurkeztea, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:
1.- Auto-karabanen parkinaren egokitze lanak Oskariz Anaiak SLri 2.638,20 eurotan, BEZa kanpo, esleitzea.
2.- Akordio hau interesatuei eta udal kontu-hartzaileari helaraztea, jakinaren gainean egoteko eta ondorioetarako.

***4.1 ALCALDIA*** *informa a la Junta de Gobierno Local sobre el expediente de contratación para los trabajos de acondicionamiento del parking de auto-caravanas. Vistas las ofertas presentadas por Lindutx Baztan SL, Oskariz Anaiak SL y Miguelene SL. Visto que la mejor oferta económica es la presentada por Oskariz Anaiak SL en importe de 2.638,20 €, IVA excluido. Teniendo en cuenta que la Ley Foral 6/2006 de Contratos Públicos establece que en ese tipo de contratos de asistencia inferiores a 3.000 euros, IVA excluido, únicamente se exigirá la la presentación de la factura, la Junta de Gobierno Local ha resuelto:*
*1.- Adjudicar los trabajos de acondicionamiento del parking de auto-caravanas, a Oskariz Anaiak SL por importe de 2.638,20 €, IVA excluido.*
*2.- Notificar el presente acuerdo a los interesados y a la interventora municipal, para su conocimiento y efectos oportunos.*

**4.2 MAITE OTEIZA** zinegotziak, Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazkian nazioarteko kooperaziorako proiektu, programa eta planak diruz laguntzeko egin den deialdiaren barne, oinarrizko beharrak betez eta giza baliabideak susper-tuz, garapen bidean dauden herrialdeetako komunitateetako potentzialtasun sozio-ekonomikoen garapena laguntzeko asmotan, honako banaketa proposatzen du 2013 urterako:

***4.2*** *La concejal* ***MAITE OTEIZA****, en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local ha dado cuenta de la convocatoria para la concesión de subvenciones a proyectos, programas y planes de Cooperación Internacional, con el fin de apoyar el desarrollo de las potencialidades socio-económicas de comunidades que se encuentren en países en vías de desarrollo tratando de satisfacer sus necesidades básicas y potenciar los recursos humanos, para la que propone el siguiente reparto para el 2013:*

| | | |
|---|---|---|
| Franciscanos Conventuales | | 3.500,00 € |
| Behar Bidasoa | | 3.000,00 € |
| Euskal Fondokoak: | Nikaragua | 7.323,77 € |
| | Guatemala | 7.323,77 € |
| | El Salvador | 7.323,77 € |
| ANARASD | | 3.000,00 € |
| ANAS | | 3.356,07 € |
| 2. Familia | Ruben Garate Olondriz | 930,00 € |
| | Nuria Idoate Irigoyen | 930,00 € |
| Saharaztan | | 5.225.15 € |
| | **Denetara** | **41.912,53 €** |

Proposamena behin aztertuta, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:
1.- Proposamena onartzea.
2.- Akordio hau Maite Oteizari, kontu-hartzaileari eta interesatuei helaraztea, jakinaren gainean egoteko eta ondorioetarako.

*Vista la propuesta La Junta de Gobierno Local ha resuelto:*

*1.- Aceptar la propuesta.*

*2.- Notificar el presente acuerdo a Maite Oteiza, a la interventora municipal y a los interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.*

**4.3 MAITE OTEIZA** zinegotziak, Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazkian gizarte proiektuak eta jarduerak garatzen dituzten talde, kolektibo eta irabazi asmorik gabeko elkarteak diruz laguntzeko egin den deialdia dela eta, honako banaketa proposatzen du 2013 urterako:

***4.3*** *La concejal* ***MAITE OTEIZA****, en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local ha dado cuenta de la convocatoria para la concesión de subvenciones a grupos, colectivos y asociaciones sin ánimo de lucro que desarrollen proyectos y actividades sociales en la zona de Baztan, para la que propone el siguiemte reparto para el 2013:*

| | |
|---|---|
| Bidelagun | 4.762,80 € |
| Xauli | 2.600,00 € |
| Eguzkilore | 1.242,00 € |
| Anasaps-Dizdira | 2.200,00 € |
| Elikagai Bankua | 2.591,40 € |
| Afina | 1.100,00 € |
| Anfas | 1.503,80 € |
| **Denetara** | **16.000,00 €** |

Proposamena behin aztertuta, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:
1.- Proposamena onartzea.
2.- Akordio hau Maite Oteizari, kontu-hartzaileari eta interesatuei helaraztea, jakinaren gainean egoteko eta ondorioetarako.

*Vista la propuesta La Junta de Gobierno Local ha resuelto:*

*1.- Aceptar la propuesta.*

*2.- Notificar el presente acuerdo a Maite Oteiza, a la interventora municipal y a los interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.*

**4.4 MAITE OTEIZA** zinegotziak, Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazkian herri eskolak materiala erosteko diruz laguntzeko egin den deialdiaren banaketaren 2013 urterako proposamena aurkeztu du:

***4.4*** *La concejal* ***MAITE OTEIZA****, en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local ha dado cuenta de la convocatoria para la concesión de ayudas para la compra de material escolar para las escuelas de pueblos de la zona de Baztan, para la que propone el siguiente reparto para el 2013:*

| | |
|---|---|
| Almandoz: | 66,22 € |
| Amaiur: | 82,67 € |
| Arizkun: | 86,41 € |
| Arraioz: | 69,21 € |
| Azpilkueta: | 59,70 € |
| Erratzu: | 84,92 € |
| Gartzain: | 63,97 € |
| Irurita: | 114,09 € |
| Oronoz: | 88,66 € |
| Ziga: | 71,45 € |
| Erreboteko eskola: | 55 € |
| Elizondoko eskola: | 257,70 € |

Proposamena behin aztertuta, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:
1.- Proposamena onartzea.
2.- Akordio hau Maite Oteizari, kontu-hartzaileari eta interesatuei helaraztea, jakinaren gainean egoteko eta ondorioetarako.

*Vista la propuesta La Junta de Gobierno Local ha resuelto:*

*1.- Aceptar la propuesta.*

*2.- Notificar el presente acuerdo a Maite Oteiza, a la interventora municipal y a los interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.*

**4.5 MAITANE MARITORENA** zinegotziak, Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazkian jarduera kulturalak egiteko eta elkarte kulturalendako diruz laguntzeko egin den deialdia dela eta, honako banaketa proposatzen du 2013 urterako:

***4.5*** *La concejal* ***MAITANE MARITORENA****, en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local ha dado cuenta de la convocatoria para la concesión de subvenciones a actividades y colectivos culturales en la zona de Baztan, para la que propone el siguiente reparto para el 2013:*

| | |
|---|---|
| **Kultur Elkarteak** | |
| Erratzuko kultur elkartea | 3.350,00 € |
| Baztandarren Biltzarra elkartea | 6.000,00 € |
| Banda Recreo de Elizondo | 2.112,00 € |
| Elizondoko Abesbatza | 316,00 € |
| Museoaren lagunak/Kasinoa elkartea | 962,00 € |
| Iruritako Dantzariak elkartea | 2.149,00 € |
| Itsusi elkartea | 132,00 € |
| Baztango Dantzariak elkartea | 410,00 € |
| Jo ala Jo elkartea | 2.021,00 € |
| **Guraso elkarteak** | |
| Arizkungo guraso elkartea | 561,00 € |
| Ertzuingo guraso elkartea | 1.278,00 € |
| Baztango Ikastola guraso elkartea | 737,00 € |
| San Francisco Ikastetxea guraso elkar. | 745,00 € |
| Iruritako guraso elkartea | 801,00 € |
| Iruritako eskola guraso elkartea | 147,00 € |
| **Beste elkarte batzuk** | |
| Baztango Lore emakume elkartea | 927,00 € |
| Legate barrideen elkartea | 432,00 € |

Proposamena behin aztertuta, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:
1.- Proposamena onartzea.
2.- Akordio hau Maitane Maritorenari, kontu-hartzaileari eta interesatuei helaraztea, jakinaren gainean egoteko eta ondorioetarako.

*Vista la propuesta La Junta de Gobierno Local ha resuelto:*
*1.- Aceptar la propuesta.*
*2.- Notificar el presente acuerdo a Maitane Maritorena, a la interventora municipal y a los interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.*

**4.6 JON ELIZETXE** zinegotziak, Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazkian 200 €ko dirulaguntza eskatu du Baztango tokiko garapenaren inguruan Jaime Izquierdo Vallinak eman behar duen hitzaldiaren antolakuntza diruz laguntzeko. Eskaera ikusirik , Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:
1.- 200 €ko dirulaguntza ematea Baztango tokiko garapenaren inguruan Jaime Izquierdo Vallinak eman behar duen hitzaldiaren antolakuntzarako.
2.- Akordio hau Jon Elizetxeri, kontu-hartzaileari eta interesatuei helaraztea, jakinaren gainean egoteko eta ondorioetarako.

***4.6** El concejal **JON ELIZETXE** en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local ha solicitado una ayuda de 200 € para sufragar los gastos de organización de la charla dada por Jaime Izquierdo Vallina sobre el desarrollo local de Baztan. Vista la solicitud la Junta de Gobierno Local ha resuelto:*
*1.- Otorgar una ayuda de 200 € para la organización de la charla dada por Jaime Izquierdo Vallina sobre el desarrollo local de Baztan.*
*2.- Notificar el presente acuerdo a Jon Elizetxe, a la interventora municipal y a los interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.*

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, 12:30ean alkateak bilera amaitutzat ematen du. Nik, idazkari naizen honek, hori guztia idazten eta ziurtatzen dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, la alcaldesa levanta la sesión a las 12:30 horas, de lo que yo, el secretario, doy fe.*

ONIRITZIA / *Vº Bº*
ALKATEA / *LA ALCALDESA*
GARBIÑE ELIZEGI

IDAZKARIA / *EL SECRETARIO*